

Udal ordenantza, lizoainibar-arriasgoitiko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituena

ARRAZOIEN AZALPENA

Mendeetan zehar gure haraneko herritarrek euskaraz hitz egin izan dute, eta gaur egunean ere hitz egiten dute. Horrez gain, nafar guztion ondare kulturala da, bai ezagutu eta erabiltzen dutenena, baita erabiltzen ez dutenena ere.

Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak euskara gure ondare kulturalaren parte dela irizten du, eta gaztelaniarekin batera gure udalerriko bi hizkuntza ofizialetako bat dela.

Ordenantza honetan islatu nahi izan da herritarrek euskara sustatzearen eta normalizatzearen alde duten jarrera. Aintzat hartuta, gainera, haraneko haur gehienak euskararen presentzia bermatzen duten hezkuntza-ereduetan matrikulaturik daudela, gure harana urtez urte elebidunagoa izanen da eta, hortaz, euskaldun gehiago biziko dira bertan. Biztanleria horrek Udalaren zerbitzuak beharko ditu eta, legearen arabera hizkuntza-eskubideetan oinarrituta, euskarazko zerbitzu gehiago beharko dira, eta herritarrekiko zerbitzu publikoak ematea helburu duen Udalak dagokion eran erantzun beharko die eskakizun horiei.

Administrazio publikoen autonomiaren printzipioa kontuan harturik, udal administrazioari dagokio euskara normalizatzeko bidean egokiak diren neurriak hartzea, bai eta hizkuntza hori jakitea ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak eta bitartekoak erabaki eta arautzea ere.

Administrazio bakoitzari dagokio aipatu arauak eta xedapen orokorrak bere jarduketa eremuan aplikatzea eta aplikazio horretarako bitartekoak arautu eta ezartzea. Honako hau da ordenantza honen eginkizuna: arauak eman eta betearaztea, Eguesibarko Udalaren jarduketa eremuan aplikatu daitezkeen.

Aipatu behar da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak helburutzat duela herritarren eskubidea babestea euskara jakin eta erabiltzeko, eta hura berreskuratu eta garatzeko. Era berean, lege horrek berak administrazio publikoetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzen die herritarrei, eta aukera ematen du euskaldunekin kontaktua izan dezaketean lanpostuetarako euskaraz jakin beharra nahitaezkoa izateko, eta gainerakoetan baloratua.

Ez da ahaztu behar, bestalde, Erregioetako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Gutuna, Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak 1992ko ekainaren 25ean hitzarmen gisa onetsitakoa, hamaika estatu kidek (Espainiak barne) urte bereko azaroaren 5ean sinatua. 10. artikuluan, administrazio agintariei eta zerbitzu publikoei buruzko gomendioak aipatzen dira, besteak beste:

"...jendaurrean dauden agenteek erregioetako edo gutxiengoan hizkuntzak erabil ditzaten zaintzea, hizkuntza horietan mintzatzeko zaizkienekin".

"...erregio hizkuntzetako hitzunik (...) eskaerak ahoz edo idatzita aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan har dezaten zaintzea (...)".

Aipatu den araudiarekin bat eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, ordenantza hau onestea erabaki da:

I. KAPITULUA – ORDENANTZAREN XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

1. artikulua. Ordenantza honen helburua da euskera udalerrri honetako biztanleentzako zerbitzu-hizkuntza izatea, haren erabilera normalizatu eta sustatzeaz gain.

2. artikulua. Aipatu xedea betetzeko, ordenantzak ondoko xede bereziak ditu:

- a) Herritarrei helaraztea euskara osagai garrantzitsua dela integrazioaren zein komunikazioaren aldetik.
- b) Herritarrei bermatzea haiek erabili nahi duten Nafarroako hizkuntza propioan jasoko dutela arreta.
- c) Zehaztea Udalaren kanpo irudian euskararen erabilera zein izanen den.
- d) Euskararen idatzizko eta ahozko erabileraren araudia zehaztea Udal honi dagokionez.
- e) Zehaztea zein lanpostutan izanen den beharrezkoa euskara jakitea, eta beharrezkoa ez den lanpostuetan, zehaztea zenbat baloratuko den euskera merezimendu gisa.
- f) Udalaren barne funtzionamenduan euskararen erabilera sustatzea.
- g) Euskara sustatzeko bestelako jarduerak bultzatzea, ordenantzaren xedearekin lotura dutenak.

3. artikulua. Ordenantza hau Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalaren mugapean aplikatuko da, berau zentzu hertsian ulertuta, baita haren menpe dauden erakundeetan, autonomoak izan ala ez, eta zentro mankomunatuetan ere.

4. artikulua. Udalaren eskumeneko zerbitzuetan, edozein kudeaketa molde dela medio hirugarrenek ematen dituzten haietan, ordenantza honen II., III., IV., eta V. kapituluak aplikatuko dira.

II. KAPITULUA – ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

5. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak beste administrazio publiko batzuei zuzentzen dizkien agiri, jakinarazpen eta komunikazio administratiboak ele bitan idatziko dira.

Horretarako, begiratuko da diseinuan bi hizkuntzek tratamendu grafiko berdina izan dezaten, behar bezala bereizirik ager daitezen eta testua argi gelditzeko moduan banaturik

6. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak jaso beharreko dokumentuak elebitan bidaltzeko eskatuko die Administrazio Publiko, entitate eta organismoiei.

7. artikulua. Lizoain-Arriasgoitiko Udala Izagako Mankomunitatearen parte denez, Udal hau saiaturiko da gure leku-entitateari dagozkion kontratazioetan Mankomunitateak Ordenantza hau osatzen duten irizpideak onar eta errespetatu ditzan.

III. KAPITULUA – ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK

8. artikulua. Herritarrek Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalera euskaraz zuzentzeko eskubidea dute.

9. artikulua. Udalera euskaraz idatziz zuzentzen diren herritarrei hizkuntza horretan erantzungo zaie. Udal langile elebidunik ez egotekotan euskaraz idatziz erantzuteko behar den gaitasunekin, itzulpen-zerbitzua erabiliko da, Udaleko zerbitzua erabilita edota beste zerbitzu publiko edo pribatu bat erabilita. Horiek emanen dute eskatutako idatziaren bertsio ofiziala eta horri eman beharreko erantzun edo adostasun munizipala. Gaztelaniaz erantzuteko behar den denbora-epe antzekoan eman beharko da erantzun hau.

Horrez gain, eskaera egiten duen pertsona fisikoa bizi den tokiko beste edozein hizkuntza ofizialetan idatzitako komunikazioak onartuko ditu Udalak, betiere euskarazko edo gaztelaniazko itzulpen batekin aurkezten badira.

10. artikulua. Administrazioarekin ahoz euskaraz aritzen diren herritarrei hizkuntza horretan eginen zaie kasu, bai telefonoz bai aurrez aurre; horretarako gaitasuna duen langilerik ez bada, ordea, gaztelaniaz eginen zaie.

11. artikulua. 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, Udalak jarduketa plan bat diseinatu eta gauzatuko du, jendeari harrera egiteko tokietan udal langile euskaldunak egotea bermatzeko, ordenantza honetako V. kapituluan aipatzen den ildotik

Herritarren artean euskararen erabilera sustatzeko, behar bezala adieraziko da langileen eta lanpostuen euskara maila, eta hura erabiltzeko pizgarriak ezarriko.

12. artikulua. Gainera, honako hauek euskaraz izatea sustatuko du Udalak:

- a) Udalak antolatzen eta/edo kudeatzen dituen azterlanak.
- b) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkarietan, aldizkarietan, irratietan edo beste edozein komunikabidetan argitaratzen dituen albisteak eta xedapenak.

IV. KAPITULUA – UDALAREN KANPO IRUDIA

13. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak eta haren mendeko erakunde guztiek bide elebiduna erabiliko dute herritarrentzat oro har aritzen direnean.

Hartara, ele bitan izanen dira, euskarri tradizionaletan zein teknologia berrien bitartez, ondoko hauek:

- a) Bandoak, ediktuak, kartelak eta informazio plakak, bai barne funtzionamendukoak bai jendaurrea bideratzen diren agirietan agertzen direnak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta gisako elementuak, bai barne funtzionamendukoak bai jendaurreko agirietakoak.

- c) Udalaren egoitza eta bulegoetako errotulazioa. Halaber, eraikin, kale eta eremu publikoetako errotuluak.
- d) Udalaren ibilgailu parkearen, langileen arropen eta uniformeen errotulazioa.
- e) Interes turistikoko, zerbitzuen kontroleko eta trafikoko seinaleak, etzanak izan ala zutikakoak.
- f) Udalak administrazio prozedura guztien gaineko argibideak eman beharrez herritarren eskura jartzen dituen agiri eta ereduak.
- g) Mezu elektronikoak, SMSak, web orriak, blogak eta antzekoak.
- h) Beste edozein baliabide edo formatu, Udalaren irudia, kanpoko edo instituzionala, adierazteko erabiltzen dena.

14. artikulua. Kartelen elementu guztiak ele bitan egonen dira.

Udal jardueren informazio eta propagandako liburuxkak bi hizkuntzetan egonen dira herritar ororentzat direnean.

Kultura, kirola eta abarreko jardueraren bat iragartzen duten liburuxketan, esku programetan, katalogoetan eta gisakoetan honela erabiliko dira hizkuntzak:

- a) Informazio orokorreko elementuak (tokia, data, ordua...) bi hizkuntzetan agertuko dira.
- b) Delako jarduera hizkuntzaren erabileran oinarritzen bada batez ere (hitzaldiak, antzerkia, poesia, ikus-entzunezkoak, etab.) hura azaltzeko elementuetan, hala nola esku programetan eta katalogoetan, jarduera zein hizkuntzatan egin, huraxe erabiliko da.
- c) Jarduera beste lengoaia batzuen bidez garatzen bada (ikusizkoa, musikala, plastikoa, etab.), informazioa bi hizkuntzetan emanen da.

15. artikulua. Udal jarduera idatzizko eta/edo ikus-entzunezko hedabideetan –prensa idatzia, irratia, telebista eta internet– iragarkitu eta hedatzean bi hizkuntzak erabiliko dira, eta hedabidea euskara hutsekoa denean euskara erabiliko da soilik.

16. artikulua. Udalaren edo haren menpeko erakundeen argitalpenak elebitan egingen dira.

17. artikulua. Udaleko kargu publikoen jarduera bi hizkuntzetan egingen da.

18. artikulua. Udal esparruan hirugarrenek egiten dituzten kultur, kirol eta ekonomia jardueretan euskara eta gaztelania erabiliko dira komunikazio publiko guztietan, euskarria edozein dela ere.

V. KAPITULUA- UDAL LANGILEAK ETA UDALAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA

19. artikulua. Lizoain-Arriasgoitiko Udalak bere zerbitzuetan euskara erabiltzea sustatuko du era progresiboan, herritarrek Udalarekin euskaraz harremantzeko duten eskubidea bermatu dadin.

20. artikulua. Zehaztu eginen da zein lanpostutan behar den euskaraz jakitea Udalaren plantilla organikoan. Horretarako, honako irizpide orokor hauek aplikatuko dira:

a) Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua oinarritzat hartuta, lanpostuaren plazaren jabe diren langileek lanpostu horretan jarraituko dute, nahiz eta hasiera batean ez bete dagokien hizkuntza-maila. Irizpide hauek guztiz baliogarriak izanen dira deialdi berriei dagokienean (irekiak zein itxiak), merezimendu bidezko lehiaketetan edo lekualdaketetan eta langile horien ordezkapen deialdietan, arrazoa edozein delarik ere (baja, eszedentzia, oporrak, erretiroa...).

b) Euskararen jakintza beharrezkoa den lanpostu deialdi batean pertsona izangaiak ez badute eskatzen den euskarazko hizkuntza-perfilik, plaza hori hutsik geratuko da eta deialdi berri bat eginen da. Bigarren deialdian ere ez balego lanpostua betetzerik, behin-behinean beteko litzateke hizkuntza-perfil egokirik gabeko izangai batekin (urtebetez, gehienez jota), berriz ere beste deialdi bat egin eta linguistikoki gaitutako langile batekin plaza bete arte.

c) Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdi guztietan, euskaraz jakin beharrik ez dagoenetan, merezimendu kualifikatibo gisa baloratuko da hizkuntza honen jakintza. Merezimendu gisa zehazten denean, lanpostuaren eginkizun bereziengatik euskaldunekin komunikatu beharra gertatzen ahal denean baloratuko da euskara jakitea, euskaraz mintzatzeko eskubidea bermatze aldera.

Merezimendu gisa baloratzerako orduan, 103/2017 Foru Dekretuaren 33. artikulua honela dio: "Euskararen ezagutza nahitaezkozat jo ez den eremu mistoko toki entitateetan, euskara merezimendutzat hartzea erabaki bada, hari balorazio gehigarria emateko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako 31. artikuluan ezarritako balioak har daitezke erreferentzia moduan." hala bada, Udal honek aipatutako 31. artikuluan ezartzen diren baloreak hartuko ditu erreferentziatzat. Eremu mistoan, sarbidea oposizio-lehiaketa bidez egiterakoan, euskararen balorazioa %7-14 artekoa izanen da merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez, eta lanpostu horiek betetzeko merezimendu lehiaketetan, ordea, %6-12 artekoa izanen da merezimendu baremoaren gainerako zatiari esleitutako puntuazioari dagokionez.

d) Euskara nahitaez beharrezkoa den plantilla organikoko lanpostuetan, exijituko den gutxieneko maila B2 graduari dagokiona izanen da. Biztanleriarekin harreman zuzena duten plantilla organikoko A eta B mailako postuetan, eskatuko den euskararen jakintza-maila C1ekoa izanen da.

e) Udaleko langileak aldi baterako ordezkatu behar direnean, Plantilla Organikoko lanpostu horrek exijitzen duen euskararen jakintza-maila minimoa daukan langile batekin ordezkatu da.

21. artikulua. Edozein mailatako lanpostutan, euskararen jakintza nahitaezkoa denean edo merezimendu kualifikatu gisa baloratua, jakintza hori titulazio baten bidez

akreditatu beharko da, Hizkuntz Eskola Ofizialeko tituluarekin, haren baliokide batekin edota eskatutako perfila daukala akreditatzen duen proba batekin. Nolanahi dela ere, euskara maila egiaztatu behar bada proba baten bidez, proba hori NAPIko akreditazio unitateko teknikariek eginen dute.

22. artikulua. Euskara ikasten lagunduko zaie Udaleko langileei, ordenantza honetan ezarritako helburuak bete daitezzen.

a) Udalak hizkuntz prestakuntzarako planak antolatuko ditu, helburu horiek lortzearren. Plan horretan lanordu murrizketak, laguntza ekonomikoak eta ordezkapen posibleak aurreikusiko dira, Nafarroako Gobernuak ezartzen duen markoaren barruan.

b) Lehentasuna emanen zaie herritarrengan edo udaleko barne erabileran eragin handiena izan dezaketen lanpostuei.

23. artikulua. Udal langileak hizkuntz prestakuntzarako plan horietan sartuta badaude edo, Udalean sartzeko nahiz haien lan bizitzako edozein fasetan, dakiten euskara baloratu bazaie, dakitena erabiltzeko eskatzen ahalko zaie Lizoainibar-Arriasgoitiko udal administrazioan egiten duten lanean.

VI. KAPITULUA- KONTRATAZIOAK

24. artikulua. Zerbitzu publikoak modu pribatuan kontratatzen direnean (kontratu klausula bidez), sustatuko da erabiltzaileek euskaraz aritzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko duten eskubidea erabili ahal izatea.

Kontratatutako zerbitzuak eskaintzen duen prestazioak herritarrekin harreman zuzena badu, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Herritarrek bi hizkuntza ofizialetan dute arreta jasotzeko eskubidea eta, hortaz, kontratatutako enpresak hori kontuan izanda eskaini beharko du bere zerbitzua.

b) Esleitu den enpresaren inprimakiak, idatziak eta ohartarazpenak, erabilera publikoa dutenean, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko dira.

VII. KAPITULUA- EUSKARA SUSTATZEA

25. artikulua. Lizoain-Arriasgoitiko Udalak, Udaleko Euskara Zerbitzuak proposamen bat aurkeztu ostean, urteko jarduketara programak onartzen ahalko ditu euskarari eta egoera soziolinguistikoari buruzko gaien gaineko informazio maila handitzeko eta hizkuntza horren ezagutza eta erabilera gizartearen esparru guztietan sustatzeko.

26. artikulua. Lizoain-Arriasgoitiko Udalak bere jarduerak Nafarroako Gobernuarekin eta beste udal entitate batzuekin koordinatuko ditu, euskara sustatzeko ekimen eta kanpainetan haiekin batera parte hartzeko.

27. artikulua. Lizoain-Arriasgoitiko Udalak D ereduko eskolen eta helduentzako euskara irakaskuntzaren matrikulazio-kanpainetan parte hartuko du, baita bestelako sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainetan ere, euskararen jakintza eta erabilera bultzatzeko asmoz.

28. artikulua. Euskarazko jarduera kulturalak eta hizkuntza sustatzeko helburua dutenak bultzatzeko dira. Era berean, diruz lagunduko dira euskararen sustapena edo irakaskuntza helburu duten ekimenak.

29. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak bere parte diren edo berarekin elkarlanean ari diren enpresa publiko eta pribatuei eskatuko die gure haraneko bezeroei zuzendutako jarduerak (ohartarazpenak, faktura-bidalketak, ordainagiriak, inprimakiak, seinalizazio- eta informazio-errotulazioa, etab.) elebitan egotea.

30. artikulua. Teknologia berriekin loturiko programek eta udal bulegoetan erabiltzeko eskuratutako material orok, ahal den neurrian, euskaraz eta gaztelaniaz funtziona dezaten egokituta egon behar dute.

31. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalaren diru-laguntza jasotzen duten taldeei euskara erabiltzea eskatuko zaie diru-laguntzaren xedea diren jarduera guztietan, baita horiek sustatzeko erabilitako iragarkietan ere.

Horrez gain, eskolaz kanpoko jarduerak edo bestelakoak (kirolak, musika, etab.) antolatzen dituzten erakundeak saiatu beharko dira parte-hartzaile euskaldunek haien jarduerak euskaraz egin ahal ditzaten.

VIII KAPITULUA- TOPONIMIA

32. artikulua. Lizoainibar-Arriasgoitiko Udalak bere barrutiko toponimia (toponimia handia eta txikia) Euskaltzaindiaren irizpideen arabera zehaztuko du, eta horien forma ofiziala euskaraz dagoena izanen da.

Gatazka sortzekotan, Udalak hartuko du dagokion erabakia, betiere Euskaltzaindiaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehena.- Ordenantza hau Herritarren Parte-hartze Prozesu baten ostean onartuko da.

Bigarrena.- Ordenantza onartzerakoan, honi buruzko material argigarria argitaratuko da, Lizoainibar-Arriasgoitiko herritarrek informazioa ezagutu dezaten.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.-Ordenantza honek indarra hartuko du behin betiko onespenaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun iragan ondoren.

Bigarrena.- Lizoainibar-Arriasgoitiko Udaleko Euskara Batzordeak gaitasuna izanen du Ordenantza honen jarraipena egiteko, betetzen ote den egiaztatzeko, eta edozein gairi buruzko proposamenak egiteko.

Era berean, Nafarroako Gobernuak lau urtean behin argitaratzen duen azterketa soziolinguistikoarekin batera, Euskara Zerbitzuak ordenantza honen eraginkortasuna aztertuko du, beharrezkoa izanez gero aldaketak egiteko.